


Nola piztu lanpa bat pila batekin ?

1. Pila eta lanpa kontaktuan dira

. Pilaren bi xafla metalikoak kontaktuan ezar ditzagun lanparen bi parte metalikoekin.



1. irudia




2. Lanpa pilarengandik urrun

. Erabil ditzagun bi hari metaliko kontaktu elektrikoaren gauzatzeko.



2. irudia



Beha eta ondoriozta

1. Lanpa pilarekin zuzenean pizteko bigarren molde bat erakusten duen eskema egizu (1. irudia).
2. Kontaktuan diren lanpa eta pilaren elementuak borneak deitzen dira. Identifika itzazu pilaren borneak eta lanparenak. (1. irudia).
3. Zertarako balio dute hari metalikoek (2. irudia)?
4. Ondorioa idatz, galdera honi erantzunez: «Nola piztu lanpa bat pila batekin?»

Kasu!

Pilari egokitua den anpula bat hauta ezazu.



Zer material behar da zirkuitu elektriko baten osatzeko ?

1. Zirkuitua idekia da

- . Pila bat, etengailu bat, lanpa bat eta hari elektrikoak dituen zirkuitu bat osa dezagun.
- . Utz dezagun etengailua irekirik.

2. Zirkuitua hetsia da

- . Hastapeneko zirkuituan, etengailua hetsi dezagun eta lanpa beha dezagun.



Beha eta ondoriozta

1. Zer gertatzen da etengailua irekia delarik (1. irudia) ?
2. Zer gertatzen da etengailua hetsia delarik (2. irudia) ?
3. Zein da etengailuaren funtzioa (1. eta 2. irudiak) ?
4. Ondorioa idatz, galdera honi erantzunez: «Zer material behar da zirkuitu elektriko baten osatzeko ?»


Kasu !

Ez sekula egin esperimentu horiek sektoreko korrontearekin.


Nola eskematizatu zirkuitu elektriko bat?

1. Zirkuitu irekiaren eskematizazioa

. Beha beheko zirkuitua eta haren eskematizazioa. Etengailua irekia da.




1. irudia




2. Zirkuitu hetsiaren eskematizazioa

. Beha beheko zirkuitua eta haren eskematizazioa. Etengailua hetsia da.



2. irudia



Beha eta ondoriozta


1. Zein dira pila eta lanparen sinboloak (1. irudia)?
2. Zein da etengailu irekiaren sinboloa (1. irudia)? Eta hetsiarena (2. irudia)?
3. Nola irudikatuak dira konexio-hariak?
4. Ondorioa idatz, galdera honi erantzunez: «Nola eskematizatu zirkuitu elektriko bat?»

Kasu!

Muntaia baten marrazki sinplifikatua eskema deitzen da. Zirkuituko zati bakoitza sinbolo batez irudikatzen da.

1- Kopia eta osa

- a- Pila batekin lanpa bat pizteko, lanparenak pilaren.....ekin lotu behar dira.
- b- Korrante elektrikoaren ibilbideak, generadore bat barnean duen bat osatzen du.
- c- Zirkuitu elektriko simple baten elementuak bat, bat,-haria eta etengailua dira.
- d- Zirkuitu bat dauzkan batekin irudikatzen da.




2- Atzeman matxura (pana) duten muntaiak

- a- Zein muntaitan dirdiratzen du lanpak ?
- b- Muntaiak hori eskematiza ezazu.

3- Zirkuituko elementuak ezagutu

- a- Zenbat elementu daude ondoko zirkuituan ?
- b- Azal ezazu elementu bakoitzaren funtzioa.
- c- Zirkuitua eskematiza ezazu.




4- Egia ala gezurra

Baieztauen hauei egia edo gezurra erantzun :
Zirkuitu elektriko batean:

- a- Motore elektrikoa hartzailea da.
- b- Pila generadorea da.
- c- Etengailua dipoloa da.
- d- Etengailua irekia delarik korrante elektrikoa badabil.
- e- Generadorerik gabe korrante elektrikoa ibil daiteke.


5- Eskema bat aztertzen



Peruk, lanpa bat pizteko egin behar duen muntaiaren marrazkia egin du. Zein huts egin du ?
Hutsa zuzenduz zirkuitu horren eskema egin ezazu.


6- Muntaien eskemak kritikatzeko

Azpiko eskema horietarik batzu ez dira zirkuituen eskemak. Zeintzuk diren erran eta azal zergatik.




7- Korrontearen ibilbidea

- a- Deskriba ezazu korrontearen ibilbidea zirkuituan, elementu metalikoak izendatuz.
- b- Zein dipolo gehitu beharko litzateke zirkuitua manatu ahal izateko ?
- c- Muntaiaren eskema egizu.



8- «Joan-jin» muntaia

Jan-gelako lanpa bi leku desberdinetatik itzal edo pitz daiteke, A eta B izeneko bi etengailuren bidez: hauek bi posiziotan eman daitezke: 1 posizioa eta 2 posizioa. Horra muntaia horren eskema.



- a- Taula osa ezazu, A eta B etengailuen posizio bakoitzarentzat lanpa piztua ala itzalia denetz erranez.

B \ A	1	2
1		
2		

- b- Muntaia bakoitzaren eskema egin ezazu.



Helburuak

- . Lanpa bat pila batekin piztea.
- . Korrante elektrikoaren ibilbidea deskribatzea.
- . Zirkuitu elektriko baten elementuak aukeratzea.
- . Zirkuitu elektriko bat eskematizatzea.

Hitzen bidez ikasten dut

- . Tresna elektriko askok bi borne ditu : **dipoloak** deitzen dira.
- . **Zirkuitu elektriko** bat **konexio-hari elektriko**z lotuak diren **dipoloz** osatua da.
- . **Generadorea** zirkuituan korrante elektriko ibilarazteko **beharrezkoa den dipoloa** da.
- . Korrante elektriko ibil dadin, beharrezkoa da zirkuitua **hetsia** izan dadin.
- . Zirkuitu elektrikoak **eskemaz** irudikatzen dira. Orduan, **sinboloek** dipoloak ordezkatzeko erabiltzen dituzte eta haien artean **marren** bidez lotzen dira.
- . **Begizta** bat, dipoloz eta generadore batez osatua den ibilbide hetsia da.

Marrazkien bidez ikasten dut



Gaitasunak

- . Zirkuitu elektriko baten elementuak identifikatzea : generadorea, etengailua, lanpa, hari elektrikoak.
- . Etengailu baten funtzioa azaltzea.
- . Dipoloen sinboloak ezagutzea eta erabiltzea.
- . Zirkuitu elektriko baten eskema egitea.
- . Eskema batetik abiatuz zirkuitu elektriko bat gauzatzea.